

7/2013 FORU DEKRETU ARAUEMAILEA, abenduaren 23koa, banku-fundazioen zerga-araubidea arautzen duena (BAO Urtarrilaren 9koa)

Aurrezki-kutxei eta banku-fundazioei buruzko Legeak banku-fundazioen figura sartu du gure finantza-ordenamenduan, eta honako betebeharrak ezarri ditu: baldintza jakin batzuk betetzen dituzten aurrezki-kutxek banku-fundazio bihurtu behar dute 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera.

Espainiako Erresumak eta Europar Batasuneko gainerako kideek finantza-sektorea egoki berrantolatzeko sinatutako elkar ulertzeko memorandumeko elementuetako bat da arauketa hori; haren bidez, sektorearen tamaina eta egitura egokitzen dira eta oinarriak ezartzen dira gaur egungo egoera ekonomikoan beste arazo bat izan ez dadin. Hori dela eta, ezinbestekoa da, erabat, arauketa horren ondoriozko konpromisoak ezarritako epean betetzea.

Lege horrek aldaketa batzuk dakartza Sozietateen gaineko Zergan, Balio Erantsiaren gaineko Zergan eta Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan, banku-fundazioen zerga-araubidea ezartzeko. Aldaketa horietako batzuk, Balio Erantsiaren gaineko Zergan eta Sozietateen gaineko Zergan, egokitu egin behar dira Bizkaiko Lurralde Historikoko tributu-sistemara, hurrenez hurren, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko 26. artikuluan eta 20. artikuluko Bi ataleko 1. zenbakiaren arabera (2003ko maiatzaren 23ko 12/2003 Legearen bidez onartu zen Ekonomia Ituna). Izan ere, artikuluko horietan hau ezartzen da: batetik, Balio Erantsiaren gaineko Zerga itundutako zerga da eta Estatuak une bakoitzean ezarritako dituen edukizko eta formazko arau berberak erabiliko dira hura eraentzeko, eta, bestetik, Sozietateen gaineko Zerga bateratzeko araubidean, Estatuaren unean uneko arautegia bera erabiliko da zerga-taldea, sozietate nagusia, menpeko sozietateak, nagusitasun maila eta taldearen barne-eragiketarako definitzeko.

Horrez gainera, Espainiako zuzenbidea finantza-entitateen ikuskapenaren eta kaudimenaren arloko Europar Batasunaren araudira egokitzeko premiazko neurriei buruzko 2013ko azaroaren 29ko 14/2013 Errege Lege Dekretuak arau batzuk sartu ditu lurralde erkidearen ordenamendu juridikoan Europako Legebiltzarraren eta Kontseiluaren 2013ko ekainaren 26ko 575/2013 (EB) Erregelamendua 2014ko urtarrilaren 1ean indarrean jartzearen ondorioz (kreditu-entitateen eta inbertsio-enpresen zuzentzearen betekizunei buruzkoa da erregelamendua eta, horrez gainera, haren bidez aldatu egiten da 648/2012 (EB) Erregelamendua).

Illo horretan, Ekonomia Itunak gure araudia unean-unean Estatuan indarrean dagoena egokitu beharra ezartzen ez duen kasuei dagokienez, ezinbestekoa da lehenbailehen arautzea kasu horiek, eragile ekonomikoaren segurtasun juridikoak egoera ziur eta egonkor bat eskatzen baitu banku-fundazioen figura juridiko berri honek bere ondorioak izan ahal izateko.

Bizkaiko Lurralde Historikoaren Foru Arau Orokorrean premiazko xedapenak emateko ezartzen den bidea erabili behar da arau hau emateko, arrazoi hauengatik: lehenengo, 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera -dela ex novo, dela aurrezki-kutxak banku-fundazio bihurtuta- sortzen diren banku-fundazioek ziurtasun nahikoa izan dezaten jakiteko nolako araubidea aplikatu behar zaien; bigarren, araudia 2014ko urtarrilaren 1ean indarrean jarriko den Europako Legebiltzarraren eta Kontseiluaren 2013ko ekainaren 26ko 575/2013 (EB) Erregelamendua egokitu dadin (kreditu-entitateen eta inbertsio-enpresen zuzentzearen betekizunei buruzkoa da erregelamendua eta, horrez gainera, haren bidez aldatu egiten da 648/2012 (EB) Erregelamendua), eta, hirugarren, ezinezkoa delako ohiko prozedura erabilita egun hori baino lehenago izapidetzea era honetako xedapen bat.

Ondorioz, foru dekretu arauemaile honek izaera mistoa du; izan ere, bi eratako arauak jasotzen ditu: batzuk Bizkaiko Lurralde Historikoaren tributu-sisteman egin beharreko egokitzapenak dira

eta, besteak, berriz, premiaz hartu beharrekoak; azken horien izaera hori dela-eta, beharrezkoa da arauzko prozedura hau erabiltzea.

Horrenbestez, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauko 8. artikuluan 1. eta 2. zenbakietan zehazten denez, Foru Aldundiak bi kasutan eman ahal izango ditu zergen arloan foru arau maila duten foru dekretu arauemaileak, helburua Bizkaiko Lurralde Historikoen legeria egokitzea besterik ez denean: batetik, Bizkaiko Lurralde Historikoko legeria egokitzeko, baldin eta, Ekonomia Itunean xedatutakoaren arabera, Lurralde Historikoan ere araubide erkideko lurraldean dauden arau substantibo eta formal berberak izan behar badute aginduzko; bestetik, premiazko arrazoiak direla medio tributuen arloko neurriak hartu behar badira. Bada, artikuluko horretan ematen diren baimenak erabiliz, arestian azaldutako arrazoi guztiengatik, Ogasun eta Finantzen foru diputatuak proposatuta eta Foru Aldundiak 2013ko abenduaren 23an egindako bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, honako hau .

XEDATZEN DA:

1. artikulua. Banku-fundazioen zerga-araubidea.

1. Banku-fundazioek Sozietateen gaineko Zergaren araubide orokorrean tributatuko dute, eta, ondorioaz ez zaie aplikatuko 2004ko otsailaren 24ko 1/2004 Foru Arauan ezarritako zerga-araubide berezia (irabazizkoak ez diren entitateen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriari buruzkoa da foru arau hori).
2. Aurrezki-kutxei eta banku-fundazioei buruzko Legeko 43. artikuluko 2. artikuluan ezarritakoaren arabera, kreditu-entitate batean itunduta jarduten duten fundazio arruntek edo banku-fundazioek banku-fundazioei dagokien tratamendu fiskal bera izango dute, partaidetza-gradu berarekin.

1 bis artikulua. Diru-sarreraren arloko zuzenketa banku-fundazioentzat.

Banku-fundazioek ez dituzte zerga-oinarrian sartuko beren gizarte-ongintzarako ekintzari lotutako inbertsioak eskualdatuz lortutako errentak.

2. artikulua. Gastu arloko zuzenketak banku-fundazioentzat.

- 1 Banku-fundazioek Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauko 30. artikuluan xedatutakoa aplikatu ahal izango dute beren emaitzetatik gizarte-ongintzarako ekintzak finantzatzeko erabiltzen dituzten zenbatekoetarako, betiere arlo horren arauak eta artikuluko horretan ezarritakoa kontuan hartuta.
- 2 Banku-fundazioek gizarte-ongintzarako ekintzak egiteko bideratzen duten zenbatekoak kenkaria sortu ahal izango du fundazio horiek partaide diren kreditu-entitateen zerga-oinarrian, entitate horietatik jasotako dibidenduek banku-fundazioen sarrera guztietan osatzen duten proportzioan, baina, betiere, dibidendu horiek muga direla. Horretarako, banku-fundazioak dibidenduak ordainduko dizkion kreditu-entitateari jakinarazi behar dio era horretan kalkulatuak murrizketaren zenbatekoa, eta, horrez gainera, zenbateko hori ez duela erabili partida kengarri gisa zerga horren aitorpena egitean.

Adierazitako zenbateko hori gizarte-ongintzarako ekintzak egiteko erabiltzen ez badu, banku-fundazioak kreditu-entitateari jakinarazi beharko dio helburu hori ez duela bete, oker kendutako zenbatekoak erregularitzatzeko, Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauko 127. artikuluko 2. zenbakian ezarritakoaren arabera.

3. artikulua. Zerga-baterakuntzaren araubide berezia eta banku-fundazioak.

1. Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauko 85. artikuluko 3. zenbakian ezarritakoaren ondorioetarako, honako entitate hauek ere mendeko sozietatetzat hartuko dira: aurrezki-kutxei eta banku-fundazioei buruzko Legeko 43. artikuluko 1. zenbakian adierazitako banku-fundazioak -talde fiskaleko entitate nagusi ez

batir- eta, era berean, kutxa edo fundazio horiek erabat partaidetuta dagoen eta haien bidez kreditu-entitatean partaidetza duen edozein entitate.

2. Banku-fundazio batek zergaldi batean talde fiskal bateko entitate nagusia izateari uzten badio, kreditu-entitateak, subrogazio bidez, beretzat hartuko du izaera hori, zergaldiaren hasieratik, eta ez dira sortuko talde fiskala azkentzearen ondorioak, Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauko 99. artikuluan adierazitakoak, foru arau horretako 85. artikuluko 3. zenbakian eta artikuluko honen aurrekoan ezarritakoaren arabera mendeko sozietatea ez izateagatik taldekoak izateari uzten dioten entitateen kasuan izan ezik.

4. artikulua. Kreditu-entitateak berregituratzeko eta desegiteko eragiketak.

Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauko zazpigarren xedapen gehigarrian xedatutakoa aplikatuko da kreditu-entitateek beste kreditu-entitate baten alde negozioa, aktiboak edo pasiboak eskualdatzean, banku-berregituratzeari buruzko araudiaren babesean, nahiz eta foru arauaren 101. eta 111. artikuluetan adierazitako eragiketekin bat ez etorri.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehena. Zerga geroratuen aktiboak Zerga Administrazioaren aurrean kreditu galdagarri bilakatzea

Bat. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko ekainaren 26ko 575/2013 Erregelamenduan (EB) —648/2012 Erregelamendua (EB) aldatzen duena—, kreditu-entitateei eta inbertsio- enpresei zuzentziaz ezarri beharreko betekizunei buruzkoan, xedatutakoa bete behar duten sozietateen gaineko zergadunen zerga geroratuen aktiboak, zuzenbide publikoko erakundeekin zorpetu gabeko zordunen kaudimengabezia posibleen ondoriozko kredituen edo beste aktibo batzuen narriaduragatiko zuzkidurei dagozkienak, eta horien kengarritasuna Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauaren 22. artikuluan 1. idatz-zatiko a) letran aurreikusitakoa aplikatzearen ondorioz gertatzen ez den kasuetan, kreditu galdagarri bilaka daitezke Zerga Administrazioaren aurrean. Horien zenbatekoa horiek sortu ziren zergaldiari dagokion kuota likido positiboaren zenbateko bera izango da, betiere hurrengo idatz-zatian jasotzen den egoeraren bat gertatuz gero.

Zergaldi baten kuota likido positiboaren zenbatekoa aurreko lerrokadan adierazitakoan sortutako zerga geroratuen aktiboaren zenbatekoa baino handiagoa denean, erakundeak xedapen gehigarri honetan aurreikusitako eskubidea izan dezake, gehiegizkoaren zenbateko berean, aurreko zergaldietan edo hurrengo bi zergaldietan sortutako izaera bereko aktiboak dagokiene

Bi. Aurreko idatz-zatiak aipatzen duen bilakaera gertatuko da honako gertakariaren bat dagoenean:

- a) Zergadunak urteko kontuetan, organo egokiak ikuskatu eta onetsitakoetan, kontabilitateko galerak erregistratzen dituen.

Kasu horretan, bilakaerarako zerga geroratuen aktiboaren zenbatekoa izango da horien zenbateko osoan kapitalaren eta erreserben baturari dagokionez ekitaldiko kontabilitateko galerak adierazten dituen ehunekoa aplikatzearen ondoriozkoa.

- b) Erakundea judizialki aitortutako likidazioaren edo kaudimengabetasunaren helburu izatea.

Era berean, zerga-oinarri negatiboak ondoko ekitaldietan konpentsatzeko eskubidearen ondoriozko zerga geroratuen aktiboak kreditu galdagarri bilakatuko dira Zerga Administrazioaren aurrean, baldin eta horiek zerga-oinarrian aurreko idatz-zatiko lehen lerrokadan aipatutako zerga geroratuen aktiboak sortu zituzten zordunen

kaudimengabezia posibleen ondoriozko kredituen edo beste aktibo batzuen narriaduragatiko zuzkidurak sartzearen ondoriozkoak badira.

Hiru. Zerga geroratuen aktiboak Zerga Administrazioaren aurrean kreditu galdagarri bilakatuko dira —lehen xedapen gehigarriaren Bat idatz-zatiak aipatzen duenez—, aurreko idatz-zatian deskribatutako egoerak gertatu diren zergaldiari dagokion sozietateen gaineko zergaren autolikidazioa aurkezten den unean.

Lau. Zerga geroratuen aktiboak Zerga Administrazioaren aurrean kreditu galdagarri bilakatzeak —lehen xedapen gehigarriaren Bat idatz-zatiak aipatzen duenez— zehaztuko du zergadunak aukeratu ahal izatea honako aukera hauen artean: Zerga Administrazioari ordaintzeko eskatzea edo kreditu horiek, ordainarazpena Bizkaiko Foru Aldundiaren ardurapekoa den kasuetan, zergadunak berak bilakaeraren unean sortzen dituen beste zerga-zor batzuekin konpentsatzea. Konpentsaziorako edo ordainketarako prozedura eta epea erregelamenduz ezarriko dira.

Bost. Aurreko Bat idatz-zatian aipatzen diren zenbatekoek ez dute izango, inolaz ere, izaera kengarria, haren zuzkiduraren zergaldiko sozietateen gaineko zergaren zerga-oinarria zehazteko.

Aurreko lerrokadan aipatutako zenbatekoak zerga-oinarrian sartuko dira, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauan ezarritakoarekin bat, hura sartu aurreko eta zerga-oinarri negatiboak konpentsatu aurreko zerga-oinarri positiboaren mugarekin.

Zergaldi batean sartzen ez diren zenbatekoak hurrengo zergaldietan sartuko dira, muga berarekin. Horretarako, lehenengo eta behin, zergaldi zaharrenei dagozkien zuzkidurak sartuko dira.

Sei. Xedapen gehigarri honetan xedatutakoa aplikatzen duten erakundeek sozietateen gaineko zergaren aitortzean honako informazio hau jaso beharko dute.

- a) Zuzenbide publikoko erakundeekin zorpetu gabeko zordunen kaudimengabezia posibleen ondoriozko kredituen edo beste aktibo batzuen narriaduragatiko zuzkidurei dagozkien eta horien kengarritasuna Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauaren 22. artikulua 1. idatz-zatiko a) letran aurreikusitakoa aplikatzearen ondorioz gertatzen ez den zerga geroratuen aktiboen zenbateko osoa.
- b) Aurreko a) letran aipatutako zerga geroratuen aktiboen zenbateko osoa eta sorrera-urtea, erakundeak horien gaineko eskubidea xedapen gehigarri honetan ezarrita duen kasuetan, aurreko 1. idatz-zatiko bigarren lerrokadak aipatutakoak zehaztuta.
- c) Aurreko a) letran aipatutako zerga geroratuen aktiboen zenbateko osoa eta sorrera-urtea, erakundeak horien gaineko eskubidea xedapen gehigarri honetan ezarrita duen kasuetan.

Bigarrena. Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko 1994ko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauaren aldaketa.

Zortzigarren xedapen gehigarria gehitzen zaio Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko 1994ko azaroaren 9ko 7/1994, eta honako hau izango da xedapen horren edukia:

«Zortzigarren xedapen gehigarria.-Banku-fundazioak entitate-taldeetan sartzea.

Honako entitate hauek hartu ahal izango dira foru arau honetako IX. tituluko IX. kapituluaren araututako entitate-talde bateko mendeko entitateak: aurrezki-kutxei eta banku-fundazioei buruzko Legeko 43. artikuluko 1. zenbakian adierazitako banku-fundazioak, baldin eta enpresariak edo profesionalak badira eta zergaren aplikazio-lurraldean ezarrita badaude, eta fundazioek -zuzenean edo zeharka-kapitalaren %50 baino partaidetza handiagoa duten entitateak.

Aurrezki-kutxei eta banku-fundazioei buruzko Legeko 43. artikuluko 1. zenbakian adierazitakoa izango da kreditu-entitate nagusia, ondorio hauetarako taldearen jardueraren politikak eta estrategiak eta barruko kontrola eta kudeaketa modu loteslean erabakitzen dituenak.» .

Hirugarrena. Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari 2011ko buruzko martxoaren 24ko 1/2011 Foru Arauaren aldaketa.

Aldatu egiten da Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko 2011ko martxoaren 24ko 1/2011 Foru Arauko 57. artikuluko 3. zenbakia, eta honela geratuko da:

«3. Aurrezki-kutzak eta banku-fundazioak, gizarte-ekintzetarako egiten dituzten eskuraketengatik.».

Laugarrena. Aldatu egiten da 1991ko apirilaren 30eko 1/1991 Foru Dekretu Arauemailea, Ekonomi Jardueren gaineko Zergako Tarifak eta Jarraibidea onesten dituena.

Apirilaren 30eko 1/1991 Foru Dekretu Arauemailearen bidez Ekonomi Jardueren gaineko Zergaren tarifak onartu ziren. Tarifa horietako lehen sailean, «Aurrezki Kutzak» 812 talderako oharra aldatu da, eta honela geratu da idatzita:

«Oharra: Talde honek aurrezki erakundeak biltzen ditu, hala nola Aurrezki Kutxen Espainiar Konfederakundea, aurrezki kutzak, baserriarren kutzak, kreditu kooperatibak, banku-fundazioak eta antzeko gainerako entitateak.».

XEDAPEN IRAGANKORRA

Lehena. Aurrezki kutxa edo banku-fundazio baten mendeko entitateei aplikatu beharreko araubide iragankorra.

Honako hauek izango dira foru dekretu arauemaile honetako 3. artikuluko aipatzen dituen talde fiskalaren mendeko entitateak: aurrezki-kutxa edo banku-fundazio batek erabat partaidetuta dauden entitateak, baldin eta kutxa edo fundazio horren bidez kreditu-entitatean partaidetza badute aurrezki-kutxei eta banku-fundazioei buruzko Legeko lehenengo xedapen iragankorrean ezarritako epean.

Bigarrena. Aurreko ekitaldietatik konpentsatzeko dauden eta zerga geroratuen aktiboei lotuta dauden zerga-oinarri negatiboak aldatzea.

Bat. Araugintzako Foru Dekretu honen lehenengo xedapen gehigarrian xedatutakoaren aplikazioa izan duten zerga geroratuen aktiboak dituzten zergadunek xedapen gehigarri horrek aipatutako narriaduragatiko zuzkiduren zenbatekoan gutxituko dituzte 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera hasten den lehen zergaldian konpentsatzeko dauden eta zerga geroratuen aktiboei lotuta dauden zerga-oinarri negatiboei dagozkien zenbatekoak, legezko ondorio guztietarako gastu ez-kengarritzat hartuta.

Aurreko lerrokadan aipatutako zenbatekoak zerga-oinarrian sartuko dira, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauan ezarritakoarekin bat, hura sartu aurreko eta zerga-oinarri negatiboak konpentsatu aurreko zerga-oinarri positiboaren mugarekin.

Zergaldi batean sartzen ez diren zenbatekoak hurrengo zergaldietan sartuko dira, muga berarekin. Horretarako, lehenengo eta behin, zergaldi zaharrenei dagozkien zuzkidurak sartuko dira.

Bi. Araugintzako Foru Dekretu honen lehenengo xedapen gehigarriak aipatzen dituen zergadunentzat, zordunen kaudimengabezia posibleen ondoriozko kredituen edo beste aktibo batzuen narriaduragatiko zuzkidurak, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 22. artikuluko 1. idatz-zatiko a) letran aurreikusitakoa aplikatu zaien zuzkiduren ondoriozkoak izan ezik, zerga geroratuen aktiboak sortzen badituzte, ez dute izaera kengarria izango 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera hasten den lehen zergaldiko sozietateen gaineko zergaren zergaoinarria zehazteko. Aplikagarri gertatuko zaie, era berean, aurreko Bat idatz-zatiko bigarren eta hirugarren lerrokadetan xedatutakoa.

Idatz-zati honek aipatzen dituen kopuruei 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera hasten den lehenengo zergaldian Araugintzako Foru Dekretu honen lehenengo xedapen gehigarrian xedatutakoa aplikatuko zaio.

Hirugarrena. 2016ko urtarrilaren 1a baino lehen sortutako zerga geroratuen aktiboak Zerga Administrazioaren aurrean galdagarria den kreditu bilakatzea.

Bat. Araugintzako Foru Dekretu honen lehen xedapen gehigarrian xedatutakoa aplikagarri izango da bigarren xedapen gehigarriak aipatzen dituen 2016ko urtarrilaren 1a baino lehen sortutako zerga geroratuen aktibo guztietan, sortu den zergaldiari dagokion kuota likido positiboaren zenbatekoa edozein izan dela ere.

Bi. Aurreko idatz-zatian aipatutako zerga geroratuen aktiboen zenbatekoaren eta 2008aren eta 2015aren arteko zergaldiei dagozkien sozietateen gaineko zergaren kuota likido positiboaren zenbateko agregatuaren batuketaren arteko desberdintasuna positiboa bada, Araugintzako Foru Dekretu honen lehen xedapen gehigarrian xedatutakoa aplikatzeko erakundeak, desberdintasun horri dagokionez, zerga geroratuen aktiboak Zerga Administrazioaren aurrean galdagarri bilakatzeagatiko ondare-prestazioa ordaindu beharko du, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren hogeita hirugarren xedapen gehigarrian ezarritako baldintzetan.

Prestazio hori aurreko lerrokadan aipatutako zerga geroratuen aktiboak erregistratzen dituzten sozietateen gaineko zergaren zergaldi guztietan ordaindu beharko da.

Hiru. Aurreko idatz-zatian xedatutakoa betetzeko, ulertzen da zerga-oinarrian, lehenengo eta behin, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren hogeita hirugarren xedapen gehigarria aplikagarri duten zerga geroratuaren aktiboei dagozkien zuzkidurak sartzen direla.

Lau. Araugintzako Foru Dekretu honen lehen xedapen gehigarriaren Bat idatz-zatikoa bigarren lerrokadan xedatutakoa gorabehera, bertan adierazitako gehiegizkoak, aurretik, xedapen iragankor honen bigarren idatz-zatian aipatutako ondareprestazioa ordaindu beharrekoak diren zerga geroratuen aktiboen zenbatekoa murriztuko du.

Bost. Xedapen iragankor hau aplikatzen duten erakundeek sozietateen gaineko zergaren aitorpenean honako informazio hau jaso beharko dute.

- a) Xedapen iragankor honen Bat idatz-zatiak aipatzen duen zerga geroratuen aktiboen zenbateko osoa.
- b) 2008aren eta 2015aren arteko zergaldiei dagozkien sozietateen gaineko zergaren kuota likido positiboaren batura agregatuaren zenbateko osoa.
- c) Aurreko a) letran aipatzen den eta, aldi berean, xedapen iragankor honen bigarren idatz-zatia aplikagarri duten zerga geroratuaren aktiboen zenbateko osoa eta sortu zen urtea.
- d) Aurreko a) letran aipatzen den eta xedapen iragankor honen bigarren idatz-zatia aplikagarri ez duten zerga geroratuaren aktiboen zenbateko osoa eta sortu zen urtea eta, hala badagokio, xedapen iragankor honen laugarren idatz-zatia aplikatzearen ondoriozkoak zehaztuta.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Indarrean jartzea.

Foru dekretu arauemaile hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean, eta 2014ko urtarrilaren 1etik aurrerako zergaldietan izango ditu ondorioak; salbuespena bigarren, hirugarren eta laugarren xedapen gehigarriak dira, 2014ko urtarrilaren 1etik izango baitituzte ondorioak.

Bigarrena. Auak emateko gaikuntza.

Ahalmena ematen zaie Bizkaiko Foru Aldundiari eta Ogasun eta Finantzen foru diputatuari, foru dekretu arauemaile hau garatu eta betearazteko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzaten.

Hirugarrena. Berrestea.

Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauko 11.9 artikulua eta 2005eko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauko 8. artikulua araberak, foru dekretu arauemaile hau onartu dela jakinaraziko zaie Batzar Nagusiei, berretsi dezaten.